

## ONDO BIZI ETA ONDO IL

---

Zenon Uriguen  
pasiotarra



### EUTANASIA

Eutanasiak eriotza biguna esan nai dau. Baña eriotza biguna ez da lortzen ziztada bategaz, edo neke miñak kentzearren bizia etenik. Bizitza osoa eta eriotz ordua erabakigarriak lez artzen ikasi bear da. Ondo bizi ta ondo il, ara or gure ikasbiderik onena: ondo bizitzea gure barruan sortzen dan indarririk sakonena da. Ez da zillegi norberak bere burua erailtea. (eutanasia). Jaungoikoa da bakarrik biziaren egille ta jabea. Ez Jainkoari eskua kendu. Ez da egoki eriotzaren eskeko izatea. **“Bizi aal dan legez, ez nai dan legez. Osasuna ta bizia da gure ondasunik gorena”** **“Asko dakik, bizitzen badakik. Gure burua ezagutzea da jakinduri goragarriena”**.

### BIZITZAREN GORABERAK

Nork ukatuko dau osasunak eta bizitza onak lagun asko daukezala. Zartzaroa eta gaixo mingarria gogo txarragaz ta aienez beterik artzen ditugu. Eta ori ez da ondo bizitzea. **“Gauza onak Jaunagandik artzen badoguz, txarrak zergaitik ez”** (Job)

Gure bizitzak danetara jokatu bear dau. Zoriona ta zoritxarra, eguzkia eta izotza. Bestela arrisku bat daukagu: zoritxarrekoak izatea. Eriotzak illun jartzen gaitu. Eta zoritxarrak antziz eta negarrez. Gaixotasuna ez da bakarrik gorputzaren ondo-eza. Gaixotsuna gogo txarragaz artzea betillun jartzea da **“Gaixoak gogapen gaixoak izaten ditu” esan da. Zer egin? Eutanasia erabaki? Ori ez da ez ondo bizitzea, ez ondo iltea.**



## EGIZKO SENDAGAIK



Zer esaten eben gura asaba zarrak? **“Zarra eta labea aotik berotzen dira”** Bai aotik emon bear jake maitasunaren sua, laguntasun gozo eraginkorra. Egizko sendagaia gaxoaren eta izaera osoaren gogo

eraginkorra irabaztea da. Gaxoak bere gatxaren barri jakiteko eskubide osoa dauko. Eta ori onartzeko gure abegi ona ta txeratasuna bear dau. Ara emen sendagairik onenak: **Bizitza maitagarriak ez dau eutanasiarik nai. Gauza bat da gaxoaren ardura euki, eta beste bat bere gogora maitasuna ta eztitasuna eroan. Gauza bat da gorputzaren gatxa, eta beste bat bere gogoaren barne muiñetan etsipena bizitzea. Pertsona batzuk bizi dira gorputzak eta gogoak gaixoz eta oñazez jota. Maitasunez bizi eta maitasunez il. Auxe bai dala ondo bizi eta ondo iltea. Ori bai, laguneren laguntasun maitagarria bear da.**